

Laurel eta Hardy, komik antzezlaririk

Richard BINET

Ona komedilari ospetsu bi, bizi garean gizaldi onen erdirantza makiña bat jenteri barre eragin eutsenak. Pareragille bitxiak, dudarik bage; euren gatz eta piperrez, beti umore biziko, goibel eta triste lur-jota egoana be, poza erioela jarteko gauza ziranak. Areitz tinko ta geldiak be dardarrean ipiñi.

Laurel (1890-1965), amerikar zinema arloan aspertu barik jarduna, Ilvertson (Inglatera)-n jaio zan eta Kalifornia'ko Santa Monika'n il; bere egiazko izena Arthur Stanley Jefferson zan. Laterri Batuetara joan zan Chaplin'ekin batera Fred Karn antzerki-taldea osoturik; 1927'an, barriz, komik bikotea mamindu eban Oliver Hardy'gaz eta alkarrekin ainbat eta ainbat pelikula egin eta antzeztu ebezan.


Oliver Hardy (1892-1957), ipar-amerikar zinema-egille au be, Atlanta'n jaio ta Hollywood'en illa. Beronen benetako izena, Oliver Novelle Hardy. Izen aundiko onek be kontaezin ala pelikula antzeztu zituan. Ona batzuk: "Iratxoan gaba", "Aita Deabru", "Tatxetezko gizurenak", "Laurel eta Hardy Sarkaldean", "Oxford'eko asak", "Gizuren bi ziran beiñola", eta abar.

Bikote barregarria

"Zuk ba-dakizu, Oile, ni ez nazana zuk uste baizen abere". Esan zorrotza. Pailasoen artean batez be, mundu guztiak ezagutzen eban erantzuna. Ezpan artean eta a-

lezan barre-aldi galantak sarri sotu ebazana. Onako eztenkad mee-zorrotzak atsegin bait jake gizasemeai.

Olaxe zan, bai, Laurel eta Hardy bikotea. Biak genduzat



eban batak eta "Zu Hardy zara, ikus" besteak. Eta egunegun eta aretoz areto aurrera, illun naiz pozkor ziran jakozun sarti eginak, zorrak eta artzekoak, labur, deabrukeriak, gaur bear bada edozeinek dagizanak. Guztia zan izan irudimenak sortua, sorginkeria, aztru-lana, eutsi-errieko barrekarakara ekartena, sarkutzak eten-bearren jentea jarten ebenak.

Buruan eroien txano, kapela ziztrio bat zan naiko, askotan; edo-ta eskuan erabilien makiltxo baten bitartez, milla itzul-inguru ta zirkiñez, arin zein astiro eragiñik, txerpolari trebe bai litzan, ikusleak erdirka baiño ulertzen ez zituen azpi-jokoz, jentea jostarazten mutillak ziran.

Laurel igar meeak batez be, bere truk, atrikulu, kako-mako ta berak asmantako amarruakaz, ames-lurrunetan lez jarten ebazanakaz, urduri, kezkarazia ta asal-datua itxi oi eban ikuslea. Kasu bat: gaur zan plantxa gori bat, beste barik, oihen gainean artzeko; baita zigarro bat, suarti barik, atzamar nagusi ta erkiñaz bakar-bakarrik, ixetzeko. Urriñetik itxartu leikean umetxo lokartua, maitagarri edo lamiña batek lez, bere espiritua erdiko naiz oial zurian egindako ots meearen bitartez.

Hardy'k, zori

Hardy'k, bere zoritxar aundiz,

Stanley Jefferson, "Laurel"

...artaka trebe ta errimeak, itz...
...zein sarkorrak atertu ba...
...min-puntan erabillezanak;
...eta berba barregarriai emo...
...Adarrak ipiñi ta bostak...
...beti dozu eder, goibel eta...
...rik dagoana alai jarteko. As...
...magaz ebiltzan beti Laurel eta...
...negar-malkoz egozan be...
...irriño eztia ipiñi, seriotasu...
...nikan arpegian umore-lorea...
...zo.

...urritik kanpokoan zan bikote...
...sku-joko ta maltzurkerietan...
...naz Laurel eta gu", esan oi

ez eukazan bere konpaiñi-lagunak baizen doa, jit eta indar bereziak, esku-begi ta barne-kemen lanetarako. Onek bere aldiaren argirik errime ta onena emon oi eban, bere lagunak murgiltzen eban egoera larri estuetan zelan urten igarri eziñik. Buru-eritxia ta putzak artua, baiña adeitsu ta gizalege aundiko, munduko gizaseme lez agertu gura eban zilibokari, iruzurti, ospe ta izen aundiko. Griña orrek zirikatua bizi zan. Ezaugarri berezirik? Artega ta urduri, edozein eretitan, bere korbateaz egoera estu samarretan aurkitzen zanean, edota bere kapelea adeitsu jaso ta errez uxatu oi ebazan kinka txar eta larri-uneak.

Alkarrekin topo

Ai Roach'en saio-toki edo estudioan topez egin eben leenengoz Laurel eta Hardy'k. Ezek ez zituan ortara, alkar aurkitzera ta ogibide bat-bera eukitzera bultzatu, berezko jo-bearrak ezik. 1915'an, Laurel Hollywood'en agertu zan komedi edo antzezleri ingles famili porrot egindako baten jaioa; aurretik Ingalaterra'n itxi zituan lorratzak txerpolari talde batekin lan egiñik, 1910'an Mundu Barrirako bidean jarri baiño leen, alako Charles Spencer Chaplin'egaz ain zuzen.

Oliver Hardy, Laurel baiño urte bi gazteago, Georgia (USA)'n ostatu batekoa zan, an eta emen al-

dizkari ta egunerokoak saltzen lilia; antzezleri gero, baita izan xarmanten kantari be, zine-antzezleri bat zabaldu nai izan eban. Hollywood'ra eldu orduko nunbata lana egin eta berezko mutua lilluraturik ekarri lako bereziki. Bere izate ta gaitasunak puzkerak berez daroa paper bereziki ta astunak egitera, irugarren munduko antzezleri lakoak sarri; alan eta guzti bereziki ederto darabiltz bere eun eta ogea tamar kiloak bosteun pelikula baten berrizazio geiagotan, 1913'tik 1926 bitartean. Laurel'ekin alkartu zanetik bereziki jakina.



Oliver Novel Hardy



Antzezko tarta ikaragarrien garaia...

...anoa lez da entzutea, egaz
...na. Egazkadea nun asten
...ez dakizu sarri. Antzezleri
...aintza autu-mautu ta alegi
...ta asi zan, zine mutuaren ga
...lan eta zerak zuzentzen zi
...Leo Mac Carrey'n etxean ba
...e. "Cahiers du cinéma" (zi
...ingurraztiak) deritxon aldiz
...m, 1965'an, egin eutsoen
...izketa baten, onela diño:
...dot nik egungo aaztuko, an
...ari bi oneik alkarregaz aldiz
...ko erabagia artu neban egu

...egiaz, alan be, bestera izan
...dirudi. 1926'an, Laurel, an
...ari komikuak, galtza-jokalari
...giago ezagutua, erabagi bat
...ean, au da, beñolako bere
...jarraitzeko erabagia: gioiak
...ar idatzi ta antolatu. Hardy
...tu ebanean, orretarikoen
...ta egille zan, eta aldizkatu
...an au bere pelikuletatik ba
...taten. Eta egun batean, an
...ria gaitxotu jakonean, Lau

rel'ek ordeazkoa egin bear izan eban, Hardy'gaz bikote egiñik. Oneik biok, etziran geiago euren karrera guztian, alkarregandik al-denduko.

Bikote bitan lau gertatzen

Laurel zan antzez-taldearen burumuiñ, naizta beztera jarririk euki sueteko kanpai-gaiñean. Berak egiten zituan gioiak, bere eruditzen trukuak eta, mintzatu-ala, berak autu, jardun eta alkarizketak idazten. "Laurel antzezleri aparteko bat zan, komik antzezleria, naiko zurra berak bere goraberak asmatzeko", idazten dausku Leo Mac Carrey'k. "Laurel burutsua zan, asmotsua oso. Hardy etzan ainbeste. Biak alkar-turik, alan be, langille ederrak ziran". Ondoren gaiñeratzen dau, ankerki. "Arrigarria benetan eurak euren bidea aurkitzeko, zine-estudiora jo bearra. Beste aldetik, Laurel saiatu zan Hardy'k ikituko eukon goi-aria ikutu nairik".

Dana dala, bikotearentzat, jazoaren jokoa izan zan ardatz. Stan'ek eta Oille'k, mundu guztian jarri eben modan euren komik erraustzaillea. Espaiña'n, Gordo eta Flako deitzen jake; Euskal Errian Lodi ta Mee; Olanda'n, Dike ta Dune; Txina'raiño eldu dira Fu Tu ta Tu Tu'ren goraberak.

Orduantxe ospatzen zan "The battle of the century" (eungarren

urteko gudua), esne-gunezko tarta ikaragarrien garaia; ziñeak ez dau egundo alakorik ezagutu; lau mila tarta, berrogetamar krema litro, esne-gaiña, tonelada bat arrautz-opil... Ona ondoren "Liberty" (askatasun) arena; emen be Laurel'ek eta Hardy'k parte artu eben euren galtzakaz, eta burura ez jaken beste ezer etorri eurak aldatzeko gaindegi edo etxe-gain bildurgarri batera igotea baiño.

Komik antzezleri biok, zineman asten dira mintzatzen berebiziko erreztasuna dabelarik. "Ezkontzako atsegiñak" deritxonean, Hardy'k Laurel'en arreba artzen dau emazte, Laurel'ek jokaturik, eta Laurel'ek Hardy'ren arreba, Hardy'k jokaturik. Aitatasunaren atsegiñak datoz ondoren, "Brats" (deabrukumakaz), eta emen Laurel'ek eta Hardy'k bakotxak bere semearen papera jokatu bear.

Euren bizitzan, baiña, zorion-azkenik ez

Ekiñaren ekiñez bardin doaz gizaseme ausart oneik luza-metraiara be. Oker bat gertatu daiteke: "Laurel'en eta Hardy'ren komikea guztiz ondo etorrela metrai laburrerako" adierazten dau Roland Lacourbe'k, amerikar komikalari bioi buruz idatzi eban liburu baten. "Baiña ez bat ez besteak ez eukien bear beste gar eta adore luza-metraitako". "Laurel eta Hardy Sarkalde urru-

tian" bezela, eurak egiñiko luza-metraia ederrenetarikoa izan arren, edo-ta "Maitres de ball" (baletezko maisuak), arein azken marratzen dauana.

Ajedrezko jokoan lez jakin "Atoll K"-gaz etorriko da, euren azken filma; K. O. Ikaragarri Konpaini-lagun biak orduan doaz ixillera, ia-ia porrot egin lurra jota. Laurel'ek suntsitu dau bere ondasunak, bere bata-bata tearen ondorengo bost emakumeakaz, eta zartzarako atsegingarri le gaiztoakaz. Hardy'k, ostera, dana iralgi ta xautu dau txitxi pa, sabel-betekada ta golf zelatzen.

Eguneroko gastu-ordaindu berria ta irabaziai egungo begiratzeko ezak ez ari ez oni ez jake zer gertatu.



Atzekoaldiak zuriten

... eun eta irurogeita amairu fil-
 ... eurak arriturik ikusten ebeza-
 ... amerikar telebistan, noizik-
 ... geienak moztuta iragarkien
 ... diz diz artean. Onek esan-azo
 ... Stan Laurel'i, baztertuta
 ... Sarkaldetik ikustera joan
 ... kazetari bati: "Nik opa izan
 ... guztia, ez da zidarrak emo-
 ... daustana, geure pelikula za-
 ... moztuta ikusteak damostan
 ... baiño; onek, bai miña, au
 ... tatala atsekabe aundi gure fil-
 ... bape erruki barik moztuta
 ... tea".

1957'an il zan Hardy paralis-
 atake askoren ondoren, eskui-
 aldea geldituta itxirik. 1965'ko
 otsailean, Laurel'ek jarraitu eu-
 tson, ezker-aldetik elbarri geratu-
 ta gero. Azken orduraino, galtza
 bat-beraren zati bi legez alkarre-
 kin jokatu eben.

Euskeratzaille: AITA ONAINDIA



Eritxi onak

—Aita! Ikastolako ikas-neurrietan amar bat atera dot!

—Amar bat? Noiztik ona?

—Ara! Zenbakietan 4. Edestian 4 Edestian 1. Jakintzan 3 eta Izkunzan
 Guztira 10

(Euskerazaleak Alkartearen egutegitik)